



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018. 03.06

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Beloso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren seian, 9:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vázquez

Kontuhartzailea:

Ainhoa Molinos Zubiaurre

1. Aurreko akta onartzea.
2. Onartzea "Tolosako udalerrian arrisku egoeran dauden adingabeentzako ingurune irekiko gizarte eta hezkuntzako esku-hartze zerbitzua" kontratatzeko espedientea eta lizitazioari hasiera ematea.
- 3.- Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektua onartzea.
- 4.- Onartzea Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Urak S.A.ren arteko lankidetzaren hitzarmena, Gudari kalea berrurbanizatzeko lanak kontratatzeko eta exekutatzeko.
- 5.- Onartzea Gudari kalea berrurbanizatzeko lanak kontratatzeko espedientea eta lizitazioari hasiera ematea
6. 80/2017 eta 5//2018 faktura-zerrendak.

1. Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko martxoaren 1ean egindako batzarraren akta aztertu da eta 3. puntuko gaiari dagokion akordioaren zuzenketa egiteko, honako proposamena aurkeztu da:



TOLOSAKO
UDALA

Lehen jasotakoa:

“3. Tolosako udalerrri barruan bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publikoa kontratatzeko espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.

:://::

LEHENA.- Tolosako udal mugapean bidaiarien hiri-garraio zerbitzua kontratatzeko kontratazio-espedientea onartzea.

BIGARRENA.- Kontratuaren urteko prezioa honakoa izatea eta kontratu honek eragiten duen gastu-kopurua onartzea: **229.279,78 € (BEZa barne)** izango da, horietatik 208.436,16 € printzipalari dagozkio eta 20.843,62 € % 10eko BEZari, honako aurrekontu-partidari atxikiko zaiolarik: 2018.0700.223.01.441.10

Kontratazio honen xede diren zerbitzuak gauzatzeko epea URTEBETEKOA izatea, zerbitzuaren hasiera-akta sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.

HIRUGARRENA.- Onartzea kontratu hau gauzatzeko erabiliko diren Baldintza Administratibo Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Plegua, beren eranskinak barne.

LAUGARRENA.- Kontratazio jardunbideari hasiera ematea eta dagokion lizitazio iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako Udaleko kontratugilearen profilean, eta Eusko Jaurlaritzako Kontratazio-Plataforman, lizitatzailleek euren proposamenak 15 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

BOSGARRENA.- Erabaki horiek Kontuhartzaitzari jakinaraztea.”

Zuzenketa proposamena:

3. Tolosako udalerrri barruan bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publikoa kontratatzeko espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

KONTRATUAREN XEDEA: Tolosako udal mugapean bidaiarien hiri-garraio zerbitzuaren prestazioa esleitzeko jardunbidea.

UNITATE SUSTATZAILEA: Tolosako Udala- Obra eta Zerbitzuetako Departamentua.

ESPEDIENTEA : B10.13/2018/001



Txosten hau ematen da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen II. Xedapen Gehigarriaren 7. eta 8. ataletan araututakoaren arabera, non udal idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

2.- AURREKARIAK

I.- Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Departamentuko arduradunak, 2018ko otsailaren 15ean egindako txostenean, ondorengo hauek azaldu zituen:

“Lehena.- 2005eko apirilaren 26an Tolosako Udalaren Osoko Bilkuran, Tolosako Udalerri barruan bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publikoa lehiaketa prozeduraz kontratatzeko Baldintza Plegua onartu zen.

Bidezko iragarkia argitaratu eta kartazalak ireki ondoren, adjudikazio erabakia 2005eko uztailaren 26an hartu zuen Gobernu Batzarrak.

2005eko uztailaren 29an, Tolosako Udalak, Tolosaldea Bus, S.L. enpresarekin Tolosako Udalerri barruan bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen zuen kontratua sinatu zuen. Kontratu honek 2005eko irailaren 1etik 2015eko abuztuaren 31ra bitarteko iraupena zuen.

Bigarrena.- Kontratuaren baldintza pleguaren 3. klausulak, hau xedatu zuen: *“3º Duración del contrato: El plazo de duración del presente contrato será de 10 años desde el 1 de septiembre de 2005, Dicho contrato podrá prorrogarse por otros 5 años más, previo acuerdo expreso anual de Alcaldía o de la Junta de Gobierno Local. En caso de esta última prórroga se ajustará el precio correspondiente.”.*

Transkribaturiko klausulan araututakoaren arabera, Udalak, kontratua luzatzeko asmorik baldin bazuen, luzapen hori jasotzen zuen ebazpena hartu behar zuen **hasieran hitzarturiko epearen barruan, zera, 2015eko abuztuaren 31 baino lehenago**. Hala ere, luzatzeko erabakirik ez zen eman, eta aukera hori galdu egin zen. Beraz, Tolosaldea Bus SLri esleitutako kontratua 2015eko abuztuaren 3an amaitu zen. Hala eta guztiz ere, Tolosaldea Bus SL enpresak zerbitzua ematen jarraitu zuen, eta oraindik ere egoera honetan jarraitzen du. Beraz, une honetan ematen den bidaiarien hiri-garraioaren zerbitzua ez da inolako kontratuan oinarritzen.

Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Departamentuko arduradunak ondoko hau azaldu du bere txostenean: *Tolosaren kasuan, legez ez-beharrezkoa den hiribus zerbitzua ez prestatzeak herritarrentzako beharrezkoak diren beste zerbitzuetan gabezia handiak sortzea suposatuko luke; gainera, gabezia honek kolektibo kalteberei, premiazko*



beharrak eta ahultasunak dituzten taldeetan eragin handiagoa izango luke, hala nola ezinduek, pertsona helduek, Asuncion Klinikara doazen biztanleak, lurreamendi Egoitzako egoiliarrek, kanposantura bisitan doazenak eta hirigunetik urrun geratzen diren auzoetako biztanleak (Amarotz, Usabal, Arramele...). ...Horretaz gainera, zerbitzuarekin ez jarraitzeak hurrengo kontratuaren esleipenean kalte handiak suposatu litzaizkioke Udalari prezioaren eta zerbitzuaren kalitatearen aldetik, zerbitzua prestatzeko interesa duten enpresek, larritasun egoera hori ikusita, baldintza hobek eskatzeko indarra izango luketelako, Udalak zerbitzua aurrera ateratzeko duen larritasuna ikusirik.

II.- Egoera honen aurrean, ezinbestekoa da ondoko helburu hauek lortzea ahalik eta epe laburrenean:

- Tolosako udalerraren mugaren barruan bidaiarien garraio publikoko zerbitzuaren esleipena publizitatea, gardentasuna, berdintasuna eta diskriminazio ezaren printzipioetara egokitzea.
- Zerbitzuaren prestazioa aplikagarri zaion araubide juridikoari egokitzea.
- Zerbitzuaren kontraprestazioak benetako kostuetara egokitzea.

Bidaiarien garraio zerbitzu publikoak arautzen dituen 1370/2007 Europako Erregelamenduak, bere 7.2 artikuluan, ondoko hau xedatzen du emakiden kasuan: *Cada autoridad competente adoptará las medidas necesarias para que, a más tardar un año antes del inicio del procedimiento de licitación....se publiquen en el Diario Oficial de la Unión Europea los datos siguientes, como mínimo:*

- a) nombre y datos de la autoridad competente;*
- b) Tipo de adjudicación considerado;*
- c) servicios y territorios potencialmente afectados por la adjudicación*

Gaur egun inolako kontraturik ez dagoenez, zerbitzua eten egin beharko litzateke, ondorio larriak sortuz, herritarren oinarrizko eskubide bat (mugikortasun unibertsala, Konstituzioaren 14. artikuluan jasotako berdintasunaren eskubidearen ondorioa) mugatuko lukeelako Tolosako Udalak. Arrazoi horiengatik, proposatzen den kontratu mota zerbitzu-kontratua da, eta ez zerbitzuak kudeatzeko edo zerbitzuen emakidako kontratua, hurrengo ataletan azalduko den moduan.

III.- Hori guztia aintzat hartuta, Tolosako Udaleko Hirigintza, Zerbitzu eta Obretako Departamentuko arduradunak, 2018ko otsailaren 15ean egindako txostenean, udalerrri honetako mugapean bidaiarien hiri-garraio zerbitzuaren prestazioa kontratatzeko jardunbidea abian jartzeko proposamena egin du. Txosten honetan, bidaiarien garraioko zerbitzu publikoari buruzko udalen eskumenaren oinarri juridikoa aztertu zuen, halaber, Europar Batasuneko araudiak ekonomia-interes orokorreko zerbitzu gisa sailkatu izana, ezinbesteko zerbitzua dela ondorioztatuz.

Beraz, goian adierazitako kontratua egitea proposatu da eta horretarako egoki diren kudeaketak eta beharrezkoa den hasierako dokumentazioa eginda, izenpetzaileak



organo eskudunaren onespenerako jartzen du aipaturiko kontratuari dagokion espedientea, jarraian jasotako txostenaren eta proposamenaren arabera.

3.- **LEGE-TXOSTENA**

Udal idazkariak kontratazio espedientea aztertu du, eta, emandako txostenean, laburbilduz, ondorengo hau azaldu du:

"3.-KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 109. artikuluan xedatzen denaren arabera, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen kontratazio-espedientea egin behar da. Espedientea Lege horren 109. artikuluan ezarritakoaren arabera egin da eta 110.1 artikulua dioen bezala onartu beharko da esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentu hauek dituela egiaztatu da:

- Espedienteari hasiera emateko kontratazio-proposamena, alkate-Udalburuak eginikoa.
- Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta horren eranskinak.
- Preskripzio Teknikoen Plegua eta horren eranskinak.

Kontratu honek administrazio-izaera du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 19.1 artikulua a) atalaren arabera.

Kontratu mota zehazteari dagokionez, aintzat hartu behar da bidaiarien garraioaren zerbitzu publiko erregular eta iraunkorra kudeatzeko moduaren inguruan, bai 4/2004 Legeak – 21. artikuluan, herri arteko garraioari buruzkoan, baita hori garatzen duen Erregelamenduak, apirilaren 3ko 51/2012 Dekretuak onartutakoak, arau orokor gisa, zeharkako kudeaketa administrazio emakida bidez ezartzen dutela.

Dena den, bai 4/2004 Legearen 22. artikulua, baita Erregelamenduaren 21. artikulua ere, ez ohiko moduen artean, zerbitzua zuzenean kudeatzeko aukera aurreikusten dute, honako kasuetan:

- Zeharkako kudeaketa zerbitzuaren izaera dela-eta desegokia denean.
- Kudeaketa horrek iritsi nahi diren helburu ekonomiko eta sozialak bete ezin dituztenean.
- Interes publiko zehatzek edo izaera ekonomiko edo sozialeko arrazoiek hala eskatzen dutenean.

Tolosako udalerrriaren kasuan, bidaiarien herri garraioaren zerbitzua, iraunkorra eta orokorra ezartzeko:



- Interes publikoko arrazoiak daude, esaterako, herritarren irisgarritasun eta mugikortasun eskubidea eta ingurumenarekiko errespetua bermatzen duelako.
- Tolosako Udalak zerbitzua ustiatzeko gaitasun ekonomikoa du, ezarri zenetik kreditatu den bezala, azken bi aurrekontu-ekitaldietan.
- Era guztietan, kudeaketa mota honi behin-behineko izaera emango zaio, Europako 1370/2007 Erregelamenduan eta, orokorrean. 4/2004 Legean aurreikusitako emakidak lizitatu eta esleitu arte.

Bestaldetik, Bidaiarien Garraioaren zerbitzu publikoak arautzen dituen 1370/2007 (CE) Erregelamenduaren 5. artikulua ondoko hau xedatzen du: *1. Los contratos de servicio público se adjudicarán de acuerdo con las normas establecidas en el presente Reglamento. Sin embargo, los contratos de servicios o los contratos de servicio público, tal que definidos en las Directivas 2004/17/CE y 2004/18/CE, respecto de los servicios públicos de transporte de viajeros en autobús o tranvía, se adjudicarán con arreglo a los procedimientos establecidos en dichas Directivas cuando dichos contratos no adopten la forma de contratos de concesión de servicios en la acepción de esas Directivas. No se aplicarán las disposiciones de los apartados 2 a 6 del presente artículo a los contratos que hayan de adjudicarse con arreglo a las Directivas 2004/17/CE o 2004/18/CE.* (Gaur egunean 2014/23 eta 2014/24 Zuzentarauak)"

.....

Zerbitzu-kontratua (eta ez zerbitzu publikoaren kudeaketaren kontratua) izatearen ondorioak ondoko hauek izango lirateke:

- Kontratatik ez du bere gain hartzen zerbitzuaren ustiapenaren operazio-arriskurik eta ordainsarien jasotzea ez dago baldintzaturik inolako ziurgabeko gertakizunetara.
- Zerbitzuaren antolaketa Udalaren esku egongo da.
- Zerbitzuaren ordainsaria kontratatik jaso beharreko prezioan datza eta ez zerbitzuaren ustiapenaren eskubidean.

Kontratu mota hori Lege horren 10. eta honi loturiko artikuluetan arautzen da. 10. artikulua ondorengoa dio: *"Son contratos de servicios aquéllos cuyo objeto son prestaciones de hacer consistentes en el desarrollo de una actividad o dirigidas a la obtención de un resultado distinto de una obra o un suministro. A efectos de aplicación de esta Ley, los contratos de servicios se dividen en las **categorías enumeradas en el Anexo II.**"*

Hori horrela, zerbitzu-kontratua izaki eta kontratuaren xedea kontutan izanik, Legearen **II. Eranskinen 2. kategorian** (*"Servicios de transportes por vía terrestre (2), incluidos servicios de furgones blindados y servicios de mensajería, excepto transporte de correo"*) sartuko litzateke.



Zerbitzu-kontratuetan kontuan hartu behar dira:

1.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 13. artikulua araudi armonizatura loturiko kontratuei buruz dioena: *"Son contratos sujetos a una regulación armonizada los contratos de colaboración entre el sector público y el sector privado, en todo caso, y los contratos de obras, los de concesión de obras públicas, los de suministro, y los de servicios comprendidos en las categorías 1 a 16 del Anexo II, cuyo valor estimado, calculado conforme a las reglas que se establecen en el artículo 88, sea igual o superior a las cuantías que se indican en los artículos siguientes, siempre que la entidad contratante tenga el carácter de poder adjudicador. Tendrán también la consideración de contratos sujetos a una regulación armonizada los contratos subvencionados por estas entidades a los que se refiere el artículo 17."*

Kontratuaren xedea II. Eranskinen 2. kategorian jasotako zerbitzua da, beraz, 13. artikulua aintzat hartuta, printzipioz araudi armonizatuari loturiko kontratua izango litzateke. Halaber, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 13. artikulua zerbitzu-kontratuen inguruan eta 16. artikulua bereziki kontratu horien inguruan xedatzen dituen kategorien barruan badago ere, kontratuaren balio zenbatetsiari (312.654,24€) erreparatuz gero, zenbatekoak ezarritako balio zenbatetsia gainditzen du, beraz, zerbitzu-kontratu hau araudi armonizatuari loturiko kontratua izango litzateke.

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia eta kategoria kontuan hartuta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40.1 a) artikulua arabera, **kontratazioari buruzko errekurtsio berezia tartekatu ahal izango da**, zenbatekoarengatik araudi armonizatuari loturiko kontratua delako.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 65.1 artikulua b) atalean xedaturikoaren arabera, **zerbitzu-kontratuetan ez zaio sailkapenik eskatuko enpresariari:**

b) Para los contratos de servicios no será exigible la clasificación del empresario. En el anuncio de licitación o en la invitación a participar en el procedimiento y en los pliegos del contrato se establecerán los criterios y requisitos mínimos de solvencia económica y financiera y de solvencia técnica o profesional tanto en los términos establecidos en los artículos 75 y 78 de la Ley como en términos de grupo o subgrupo de clasificación y de categoría mínima exigible, siempre que el objeto del contrato esté incluido en el ámbito de clasificación de alguno de los grupos o subgrupos de clasificación vigentes, atendiendo para ello al código CPV del contrato. En tales casos, el empresario podrá acreditar su solvencia indistintamente mediante su clasificación en el grupo o



subgrupo de clasificación correspondiente al contrato o bien acreditando el cumplimiento de los requisitos específicos de solvencia exigidos en el anuncio de licitación o en la invitación a participar en el procedimiento y detallados en los pliegos del contrato. En defecto de estos, la acreditación de la solvencia se efectuará con los requisitos y por los medios que reglamentariamente se establezcan en función de la naturaleza, objeto y valor estimado del contrato, medios y requisitos que tendrán carácter supletorio respecto de los que en su caso figuren en los pliegos.

Halaber, aintzat hartu behar da, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 11. artikulua (773/2015 Errege Dekretuak aldatua) 5. atalak, ondorengoa xedatzen duela: ***“Salvo que en los pliegos del contrato se establezca de modo expreso su exigencia, los licitadores o candidatos estarán exentos de los requisitos de acreditación de la solvencia económica y financiera y de acreditación de la solvencia técnica y profesional para los contratos de obras cuyo valor estimado no exceda de 80.000 euros y para los contratos de los demás tipos cuyo valor estimado no exceda de 35.000 euros.”***

Hori guztia esanda eta une honetan indarrean dagoen kontratazio arloko legediak atal horren inguruan xedaturikoa aintzat hartuta, 312.654,24 €-ko balio zenbatetsia duen zerbitzu kontratua izaki, alde batetik, ez dago sailkapenik eskatu beharrik eta, bestetik, 1098/2001 Errege Dekretuaren 11. artikulua 5. atalak xedaturiko kaudimen tekniko eta ekonomikoa egiaztatzeke salbuespenean sartzen ez denez, kontratazio jardunbide honetan eskatu beharreko kaudimen ekonomiko, tekniko eta profesionala Baldintza Administratibo Partikularren Pleguan zehaztu dira, baita lizitazio iragarkian ere.

4.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Kontratuaren iraupena **urtebetekoa** izango da, dagokion administrazio-kontratua formalizatzen den unetik zenbatzen hasita. Epe hori beste sei hilabetez luzatu ahal izango da, Baldintza Administratiboen Pleguan xedaturiko kasuan, eta kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, gehienez ere urte eta erdikoa izango da.

Lizitaziorako ezarri den gehieneko urteko oinarrizko aurrekontua 229.279,78 € da (% 10eko BEZa barne), horietatik 208.436,16 € printzipalari dagozkio eta 20.843,620 € % 10eko BEZari.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 88. artikulua arabera, kontratuaren balio zenbatetsia, hasierako iraupena eta aurreikusitako luzapenak kontutan hartuta eta BEZa kenduta, 312.654,24 €-koa izatea aurreikusten da eta honako aurrekontuko partidari atxikiko zaio: 2018.0700.223.01.441.10



5.- **ESPEDIENTE MOTA**

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 109, 110, 112 eta 113 artikuluetan xedatzen denez, kontratazio espedienteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 112. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: *"geroraezinak edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espedienteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espedienteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio organoak eginda eta behar bezala arrazoituta"*. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 113. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: *"hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan..."*

Kasu honetan, ez da Legearen 112. eta 113. artikuluek xedaturiko ziorik, beraz, kontratazio-espediente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Baldintza Administratibo Partikularren Pleguko 8. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritz.

6.- **ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA**

Proposatutako kontratazioari ezarriko zaizkio Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak xedaturiko esleipen-jardunbide eta moduak; hain zuzen ere, 138.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *"La adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando el **procedimiento abierto** o el procedimiento restringido..."*

Esleipen-jardunbide hau aipatutako Legearen 157. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitako **jardunbide irekia** erabiliz izapidetuko da, Baldintza Administratibo Partikularren Pleguko 8. klausulan xedatzen denaren arabera.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena **irizpide bat baino gehiago erabiliz** egitea proposatzen da, Baldintza Administratibo Partikularren Pleguko 14. klausulan zehaztutako esleitze-irizpideen arabera, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 150.1 artikuluan aurreikusitakoa betez.



TOLOSAKO
UDALA

7.- BALDINTZA ADMINISTRAZIO PARTIKULAREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA

Kontratazio-espediterekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Baldintza Administrazio Partikularren Plegua eta zerbitzua arautuko duten Preskripzio Teknikoen Plegua aztertu dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 115., 116. eta 117. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001ko Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, eta egiaztatu da araututako xedapenekin bat datorrela.

8.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontutan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, eskumena **alkate-udalburuarena** izango da. Hala ere, Tolosako Udalaren kasuan, udal honetako alkate-udalburuak 2015eko uztailaren 28an emandako Dekretua kontuan hartuz, eskumena Tolosako Tokiko Gobernu Batzarrari dagokiola ondorioztatu du idazkari honek.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia Sektore Publiko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 210. eta 211. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.”

Aurreko guztia kontuan izanda eta Tolosako udal teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako udal mugapean bidaiarien hiri-garraio zerbitzua kontratatzeko kontratazio-espediterea onartzea.



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Kontratuaren urteko prezioa **229.279,78 € (BEZa barne)** izango da, horietatik 208.436,16 € printzipalari dagozkio eta 20.843,62 € % 10eko BEZari. Zerbitzuaren fakturazioa ondorengoa izango da: Tolosako Udalarari fakturatuko zaio zerbitzuaren hileko kostuaren eta erabiltzaileengandik zuzenean lortutako diru-sarreraren arteko aldea; hori horrela, esan daiteke 2018ko udal aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia dagoela:

1 0700.223.01.441.10 (A 175/2018)..... 90.000 euro

2019. urteko aurrekontuan eskumena duen organoak konpromisoa hartu beharko du datorren urteko aurrekontuan behar adina kreditu jartzeko, kontratu honen administrazio-baldintzen pleguan arautzen denaren arabera.

Kontratazio honen xede diren zerbitzuak gauzatzeko epea **URTEBETEKOA** izatea, zerbitzuaren hasiera-akta sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.

HIRUGARRENA.- Onartzea kontratu hau gauzatzeko erabiliko diren Baldintza Administratibo Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Plegua, beren eranskinak barne.

LAUGARRENA.- Kontratazio jardunbideari hasiera ematea eta dagokion lizitazio iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako Udaleko kontratugilearen profilean, eta Eusko Jaurlaritzako Kontratazio-Plataforman, lizitatzaileek euren proposamenak **15 egun naturaleko epean** aurkez ditzaten, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

BOSGARRENA.- Erabaki horiek Kontuhartzaitzari jakinaraztea.

Zuzenketa proposamena aztertu ondoren, 2018ko martxoaren 1eko aktaren zuzenketa aho batez onartu da.

2. Onartzea "Tolosako udalerrian arrisku egoeran dauden adingabeentzako ingurune irekiko Gizarte eta Hezkuntzako esku-hartze zerbitzua" kontratatzeko espedientea eta lizitazioari hasiera ematea.

Aipatzen den zerbitzua 2018ko urtarrilaren 13an amaitu zen. Zerbitzuaren esleipenaren deialdia egin ondoren, enpresa bakarra aurkeztu zen eta kudeaketa egiten ari zenean enpresaren ordezkariak bertan behera uzteko eskatu zuten.

Aipatzen den zerbitzua herriaren interes orokorrekoa delako, Alkatetzaren dekretu baten bitartez, Nurak zuen hitzarmena beste hiru hilabete luzatzea onartu zen, hau da, 2018ko apirilaren 18ra arte. Tarte honetan prozesu berri bat irekitzea proposatzen da.



TOLOSAKO
UDALA

Aurreko guztia kontuan izanda eta Tolosako udal teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

Lehena:- Onartzea kontratazio gastua eta kontratua arautzen duten baldintza administratibo eta teknikoak.

Bigarrena:- Tramitazioa hastea, prozedura ireki bidez esleitzeko.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari.

3.- Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektua onartzea.

AURREKARIAK

I.- Tolosako Udaleko ingeniariak, 2018ko otsailaren 19an, jarraian eranstean den txostena eman du:

Aurrekariak

2017ko maiatzean Injelan SL enpresak "Tolosako Gudari kalea hobetzeko zenbait lan aztertzeko txosten baloratua" aurkeztu zuen.

2017ko irailaren 22an, 2017/1684 alkatearen dekretu bidez, Tolosako Udalak Girder Ingenieros SL ingeniariari "Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektua" idaztea enkargatu zion, zegokion lehiaketa prozesua amaitu ondoren.

2017ko abenduaren 1ean, Girder Ingenieros SL enpresak urbanizazio proiektua aurkeztu zuen.

Proiektuaren azterketa egin eta gero, txosten teknikoa idatzi zen (ikus UA18005), non onarpenaren aurretik, zenbait aldaketa egiteko eskaera egin zen.

2018 otsailaren 6an, Girder ingeniariak enpresak "Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektua" aurkeztu zuen, eskaturiko aldaketak xertatu ondoren.

Txostena



TOLOSAKO
UDALA

1.- Xedea

Txosten honen xedea da honakoa aztertzea: "Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektua", 2017ko abenduako data duena eta Girder Ingenieros SLP ingeniariak idatzia.

2.- Egungo egoera eta proiektuaren helburua

Proiektuak bere xehetasunen baitan jasotzen ditu gaur egungo egoera eta baldintzak:

Gudari kalea Tolosa udalerriko erdialdean kokatzen da. Kale lineala eta etenik gabea da, zezen-plazatik hurbil abiatzen da Oria kalearen atzealdetik, eta Oria ibaiarekiko paralelo doan Zumalakarregi pasealekuraino luzatzen da.

Zezen plazatik hurbilen dagoen eremutik Foruen kalearekin eta Lizardi poetaren plazarekin gurutzatzen den gunerainoko zatian gaur egun erdiguneko galtzada daukagu ilarako aparkalekuekin (1,90 m zabalak gutxi gorabehera) 3,15 m zabal den noranzko bakarreko erreia albu banatan ezarrita. Jakineko gune batzuetan aparkalekuak eten egiten dira garajeetako ibi edo pasabideak eta zamalanerako guneak baitaude.

Galtzadaren albo bietan 2,65 m zabal diren espaloiak daude, atari, denda eta garaje ugariarekin, eta gainera, zuhaitz-txorkoak ere kokatuta daude.

Oro har beste kaleekin gurutzatzen den gune guztien inguruan oinezkoentzako pasabideak daude, eta ezaugarri hori gorde nahi da eremu horretan oinezkoen mugimendua erraztearren.

Gudari kalearen inguruko eraikin gehienetan fatxadako lerrotik kanporantz ateratzen den balkoi-ilara etengabea ikus daiteke, beheko solairuan dauden denden gainetik. Era berean, irudietan ikusten denez, kale horretan hainbat zuhaitz daude, oso handiak ez badira ere, elkarri lotuta edo gurutzatuta daudenak eta balkoiei traba eragiten dietenak. Ondorioz, lehen solairuetako bizilagunei oztopo eragiten die fatxadetatik oso gertu baitaude.

Kale horretatik aurrera jarraitzen badugu, eskuinaldean Lizardi poetaren plaza ikusiko dugu. Bertan hainbat zuhaitz daude eta egoteko toki aproposa eratzen dute, bai eta haurrentzako jolaslekua ere.

Azpimarratu behar dugu bai Gudari kalean bai eta aldameneko kaletan ere, ibilgailua aparkatu nahi bada ordaindu egin behar dela, eta toki bakoitzaren ezaugarri zehatzen araberrako tarifa edo prezio desberdinak daudela.

Gudari kaleko maldei dagokionez, esan dezakegu kale hau oso laua dela, luzetarako malda oso iraunkorra duela; %0.83 ingurukoa Foruen kalearekin gurutzatzen den gunera arte eta %0,08 baliokoa Foruen kalea eta Zumalakarregi pasealekuaren artean. Gudari kaleko gunerik baxuena Foruen hiribideko elkargunean dago, eta gunerik altuena, berriz, Oria kalearekin elkartzen den gunean.

Gudari kaleko zeharkako malden ezaugarri nagusietan euri urak inguruko arekatan biltzen dituzten bi isurkiko galtzadak direla aipa dezakegu.

3.- Ezaugarri orokorrak

Proiektua lantzeko garaian jarraitu diren helburuak honako hauek izan dira:

- Irisgarritasun arazoei soluzio bat ematea.
- Izaera komertziala indartzea.
- Mugikortasuna hobetzea.
- Akabera zaharkituak berritzea.



TOLOSAKO
UDALA

- Azpiegitura zaharkituak berritzea.
- Argiztapen berria egitea, led sisteman oinarritua, oinezkoen segurtasun baldintzak hobetzeko.
- Mantentze-lan gutxi duten materialen erabilpena.

4.- Dokumentazioa

Proiektuak, besteak beste, ondorengo dokumentazioa jasotzen du:

A) MEMORIA

1. MEMORIA

- 1.- Proiektuaren aurrekariak eta helburua
- 2.- Egungo egoeraren deskribapena
- 3.- Proiektuaren deskribapena
- 4.- Exekuzio epea eta bermealdia
- 5.- Aurrekontua
- 6.- Kontratistaren sailkapena
- 7.- Prezioak berrikusteko formula
- 8.- Idazle-taldea
- 9.- Proiektua osatzen duten dokumentuak

2. ERANSKINAK

1. ERANSKINA: Proiektuaren ezaugarri nagusiak
2. ERANSKINA: Topografia eta kartografia
3. ERANSKINA: Kutxatilen erregistroa
4. ERANSKINA: Argiteria
5. ERANSKINA: Azpiegiturak
6. ERANSKINA: Hodi biltzaileen trazatua
7. ERANSKINA: Obra plana
8. ERANSKINA: Prezioen justifikazioa
9. ERANSKINA: Kalitatearen kontrola
10. ERANSKINA: Hondakinak kudeatzeko azterlana
11. ERANSKINA: Segurtasun eta osasun azterlana
12. ERANSKINA: Irisgarritasun araudia betetzea

B) PLANOAK

1. KOKAPENA
2. EGUNGO EGOERA
 - 2.1 OINPLANOA
 - 2.2 PROFILAK
 - 2.3 AZPIEGITURAK
3. OINPLANO OROKORRA
4. OINPLANO GAINJARRIA
5. AKOTATUTAKO OINPLANOA
6. ZOLAKETA OINPLANOA
7. PROFILAK
8. SEKZIO TIPOAK



9. AZPIEGITURAK

- 09.1. ARGITERIA
 - 09.2. EURI-URAK
 - EURI-URAK. OINPLANOA
 - EURI-URAK. LUZETARAKO PROFILAK
 - 09.3. UR-HORNIDURA
 - 09.4. UR ZIKINAK
 - 9.4.1 UR ZIKINAK. OINPLANOA
 - 9.4.2 UR ZIKINAK. LUZETARAKO PROFILAK
 - 09.5. ARGINDARRA
 - 09.6. TELEFONIKA
 - 09.7. EUSKALTEL
 - 09.8. XEHETASUNAK
10. IBILGAILUEN IBILBIDE-BIRAKETA
11. HIRI-ALTZARIAK
12. SEINALEZTAPENA
13. OBRAKO FASEAK

C) EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA

D) AURREKONTUA

1. KAPITULUA - NEURKETAK
2. KAPITULUA - PREZIOEN KOADROAK
3. KAPITULUA - AURREKONTUA
4. KAPITULUA - AURREKONTUAREN LABURPENEA

5.- Aurrekontua

Proiektua osatzen duten dokumentuetako bat aurrekontuarena da. Bertan, honako kopuruak jasotzen dira:

- Gauzatze aurrekontu materiala.....455.473,95 €
- GO+EI (% 19).....86.540,05 €
- Kontrataren aurrekontua.....542.014,00 €
- BEZa (% 21).....113.822,94 €
- **GUZTIRA.....655.836,94 €**

Proiektuan jasota dauden lan guztiak aurrekontuan dute isla. Halere, lan guztiak ez dira Udalaren kargu izango, baizik eta kopuru batzuk; zenbait azpiegiturari dagozkienak beste enpresa batzuen kargu izango dira. Hain zuzen ere, hauexek dira Udalaren kontura ez doazen lanak, beraien kostuekin (BEZa barne):

- Gipuzkoako Urak (Ur-hornidura).....8.569,43 €
- Gipuzkoako Urak (Ur zikinak).....76.459,98 €
- Gipuzkoako Urak (Euri-uren gainkostua).....50.063,40 €



TOLOSAKO
UDALA

- Tolargi (Argindarra).....35.536,49 €
- **GUZTIRA.....170.629,28 €**
- **UDALAK FINANTZATZEKO485.207,66 €**

Tolosako Udalak kontsignaturik du berak finantzatu behar duen kopurua 2017ko aurrekontuan, 0700.601.04.153.20 2017 partidan, hain zuzen ere.

Obraren aurrekontua bere osotasunean osatzeko, Udalak ondorengo hitzarmenak sinatu eta, behar izanez gero, udal aurrekontuetan aldaketak egin beharko dira, lizitazioa abian jarri ahal izateko:

- Gipuzkoako Urak
- Tolargi
- Telefonica

Bestalde, ez dira kontuan hartuko txosten horretan egiten diren aipamenak behar diren hitzarmenei buruz.

6.- Mugikortasuna eta trafikoa

Udaleko trafiko koordinatzaileak txostena idatzi du. Txosten horretan zenbait aldaketa proposatzen dira, obrako fasean kontuan izatekoak:

- *Norabide debekua, R101, Laskoain- Lizardi bidegurutzean.*
- *Konkorra edo resaltoa, P15a, Laskoain- Lizardi bidegurutzean.*
- *Konkorra edo resaltoa, P15a, Oria-Gudari bidegurutzean, Izkiña tabernaren parean*

7.- Euri-urak

Udal ingeniariak proiektua aztertu ondoren, hainbat aipamen egiten ditu:

Proiektua onartzen da.

Samaniego kaleko espaloi batean falta da 20 cm-ko saretoa marraztea eta aurrekontuan sartzea.

8.- Argindar distribuzioa

Tolargi enpresa publikoaren arduradun teknikoak proiektua aztertu ondoren, bere txostena egin du. Txosten horretan zenbait baldintza jartzen dira:

Se informa favorablemente.

Las canalizaciones de la carretera se deben respetar sin romper durante la obra (hay líneas en servicio). Si se rompiera algún tramo de canalización cuya reparación no se pueda realizar correctamente, se deberá tender tubos nuevos de arqueta a arqueta a cargo de la constructora.

Al final de obra se deben taponar todos los tubos, con tapones normalizados.

Si las arquetas son profundas instalar pates.



TOLOSAKO
UDALA

9.- Irisgarritasuna

Oinezkoen zebrabideak lurrean seinaleztatzeko garaian, Eusko Jaurlaritzako 68/2000 Dekretuak jasotzen dituen irizpideak jarraitu beharko dira.

10- Tramitazioa

Proiektuaren onarpenari eta tramitazioari dagokionez, txosten juridikoa egin beharko da.

11- Esleipen prozedura

2017ko azaroaren 9an 9/2017 Legea publikatu zen, Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituena. Indarrean sartzeko data publikaziotik lau hilabetetara da, hau da, 2018 martxoaren 10ean.

Pleguak egiteko garaian aztertu beharko da zein Kontratu Lege den aplikagarria.

Lanen objektua eta aurrekontua ikusita, prozedura ireki bidez esleitzea proposatzen da.

Baldintza plegu partikularrek zehaztu beharko dituzte kontuan hartu beharreko puntuak, hauek proposatzen direlarik:

- Prezioaren hobekuntza
- Obren atal nagusien azterketa
- Atal baldintzagarrien azterketa eta epeen bideragarritasuna
- Trafikoaren azterketa
- Afekzioak

Automatikoki kuantifikagarriak ez diren irizpideetan puntuen % 50 lortzen ez duten enpresak lehiaketatik kanpo geratu beharko lirateke.

Kontratistek beharko duten klasifikazioari dagokionez, honako proposatzen da:

TALDEA.....G (Bideak eta mendi-bideak)
AZPITALDEA.....4 (Nahaste bituminosoko bide-zoruak)
KATEGORIA.....3 (urterokoa 360.000 €-tik gorakoa eta 840.000 €-tik beherakoa)

12.- Obren iraupena eta planifikazioa

Proiektuak obren programazioari buruzko atal bat dakar, non obrak bere osotasunean amaitzeko 6 hilabeteko epea ezartzen den.

13.- Ondorioak



TOLOSAKO
UDALA

Hori guztia kontutan hartua, proposatzen da onartzea "Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektua", Girder Ingenieros SLP enpresak idatzia.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I.- PROIEKTUAREN ONESPENA

I.I.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, tokiko obra publikotzat jo daitezke toki erakundeek egindako lanak, baldin eta beren eskumeneko zerbitzuak eta jarduerak emateko alorretan gauzatzen badira, kontratu legeria orokorrak ezarritako ezaugarriak betetzen badituzte eta beren diru-funtsekin edota beste batzuetako erakunde zein norbanakoen diru-laguntzarekin finantzatzen badira.

Lege horren 25.2 artikulua d) atalean xedaturikoaren arabera, Udalak eskumena du bere titularitateko ekipamenduen gainean lanak burutzeko.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei aplikagarri zaien Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua, udalerrien eskumen propioak arautzen dituenak, udalerriek eskumen propioztat hartzen du argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.

I.II.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 121. artikulua ondokoa xedatzen du: "*1. En los términos previstos en esta Ley, la adjudicación de un contrato de obras requerirá la previa **elaboración, supervisión, aprobación y replanteo del correspondiente proyecto que definirá con precisión el objeto del contrato.** La aprobación del proyecto corresponderá al órgano de contratación salvo que tal competencia esté específicamente atribuida a otro órgano por una norma jurídica.*"

I.III.- Proiektua osatzen duen dokumentazioa aztertuta, betetzen ditu honakoak: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 123. artikulua eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2011 Errege Dekretuaren 125. artikulua eta ondorengoek xedaturikoa.

I.IV.- Lanen xedea eta izaera aintzat hartuta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 122.1 xedaturikoari jarraiki, obra hau zaharberitze eta birgaitzeko artean sailka daiteke Lege horren 122. artikulua 6. eta 7. atalean xedaturikoarekin bat, udal arkitektoak bere xostenean adierazitako zioak aintzat hartuta.

I.V.- Proiektuan definituriko obraren aurrekontu orokorra 655.836,94 euro da (% 21eko BEZa barne), beraz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen



TOLOSAKO
UDALA

duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 125. artikulua xedaturiko ikuskapena egiten behar da, kontratuaren zenbatekoak 350.000 € gainditzen dituelako.

I.VI.- Proiektua onetsi ondoren, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 126. artikulua xedatzen du, obraren kontratazio-espeditzea izapidetzen hasi aurretik, **proiektuaren zuinketa** egin behar dela, obraren errealitate geometrikoa egiaztatzeko eta obra hori arazorik gabe egiteko beharrezko lurak erabilgarri daudela ziurtatzeko. Zuinketa egitea ezinbestean bete beharrezko baldintza izango da esleipen-jardunbide guztietan. Era berean, egindako proiektuan agertzen diren eta kontratua egiteko oinarritzekoak diren kasu guztiak egiaztatu behar dira.

Artikulu horren 4. atalak xedatzen du, proiektuaren zuinketa egin ostean, **proiektua kontratazio espedituari erantsi behar zaiola**.

Hori guztia aintzat hartuta, teknikari honek deritzo ez dagoela eragozpenik GIRDER INGENIEROS enpresak egindako "Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektua" onesteko, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak eta Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak proiektuaren elaborazioaren, ikuskapenaren, onarpenaren eta zuinketaren inguruan xedaturiko lege xedapenekin bat egin delako.

Hala ere, udal ingeniariak egindako txostenean gaizki azaltzen da obra finantzatu behar duen partida, zuzena ondorengo izango delarik: 0700.601.04.153.20 2018.

Bestalde, ez dira kontuan hartuko txosten horretan egiten diren aipamenak behar diren hitzarmenei buruz.

I.VII.- Proiektua onesteko eskumena **kontratazio-organoak** du, kasu honetan, **alkate-udalburuak**, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 24ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalak xedaturikoarekin bat.

Gipuzkoako Urak-ek ontzat eman du proiektua, martxoaren 6an sinatutako hitzarmenean.

Hala ere, alkateak delegatuta du proiektuak onartzea Gobernu Batzarrean, 2015eko uztailaren 18ko 1278/2015 Dekretuaren bidez.



TOLOSAKO
UDALA

Aurreko guztia kontuan izanda eta Tolosako Udaleko udal teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Girder ingenieros enpresak idatzitako **“Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektua”**.

Proiektu horrek aurreikusten dituen lanen aurrekontu estimatua **655.836,94 €-koa da, % 21eko BEZa barne**; horietatik, 542,014,00 € printzipalari dagozkio eta 113.822,94 € % 21eko BEZari.

Hala ere, Tolosako Udalari proiektu horretatik dagozkion kontratuen zenbatekoa ondorengoa da: 485.207,66 euro, BEZa barne.

BIGARRENA. Obraren kontratazio-espeditentia izapidetzen hasi aurretik, **Udaleko zerbitzu teknikoei eskatzea PROIEKTUAREN ZUINKETA EGITEKO, obraren errealitate geometrikoa egiaztatzeko, eta obra hori arazorik gabe egiteko beharrezko lurrak erabilgarri daudela ziurtatzeko**, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 126. artikulua ezarritakoarekin bat. Era berean, egiaztatu beharko dira egindako proiektuan agertzen diren eta kontratua egiteko oinarrizkoak diren kasu guztiak.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea Kontuhartzaitzari.

4.- Onartzea Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Urak S.A.ren arteko lankidetzaren hitzarmena, Gudari kalea berrurbanizatzeko lanak kontratatzeko eta exekutatzeko.

Gudari kalea berrurbanizatzeko obretan aurreikusten dira hainbat lan, Gipuzkoako Urak egin behar dituenak, hain zuzen ere, ur saneamenduko eta ur hornidurako sareen berrikuntza-lanak.

Orain arte horrelako lanak egiteko, Gipuzkoako Ur Kontsorzioarekin hitzarmenak sinatu dira eta, horien ondorioz, Tolosako Udalak egiten zituen obra guztiak eta, Gipuzkoako Ur Kontsorzioak erakundeak ordaindu egiten zizkion Tolosako Udalari ur saneamenduko eta ur hornidurako lanei zegozkien kopuruak.

Hala ere, oraingoan, Kontratazio Publikoari buruz Europako Legebiltzarrak onartu zuen 2014/24/UE Zuzentarauan oinarrituta, Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak-ek jardunbide bateratua garatuko dute, Gudari kalea berrurbanizatzeko lanak kontratatzeko, nahiz eta erakunde bakoitzak bere gain hartuko dituen kontratu bakoitzarekin loturiko betebeharrak.



TOLOSAKO
UDALA

Sistema honek hobeto bermatzen ditu erakunde bakoitzaren betebeharrak eta ardurak, izan ere, erakunde bakoitza izango da bere kontratuaren jabe, nahiz eta kontratazio jardunbidea bide bateratuan eramango duen Tolosako Udalak, azken honek egin behar dituen obrek askoz ere aurrekontu handiagoa dutelako.

Beraz, ondorengo erabakia hartzea proposatzen da.

AURREKARIAK

Tolosako Udalak, 2006ko azaroaren 28an, uraren ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Partzuergoaren bitartez jarraitzea erabaki zuen. Hitzarmen honetan, Aguas de Gipuzkoa –Gipuzkoako Urak, S.A»rekin dagokion kudeaketa-agindua onartzea hitzartu zuen bi alderdiek.

Akordio horren bitartez Gipuzkoako Ur kontsorzioak konpromisoa hartu zuen Tolosako udalerrian 3.350.000,00 € (BEZa barne) inbertitzeko, hitzarmena sinatu eta hurrengo hamabost urteetan, ur saneamenduari eta ur hornidurari dagokienez.

Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioak azken urtetan sinatu dituzte hitzarmenak, hainbat urbanizazio obretako ur saneamenduaren eta ur horniduraren kostuak Gipuzkoako Urak bere gain har ditzan.

Ikusirik kaleko zorua altxatu behar dela Udalak egin behar dituen obrak egiteko, momentu egokia da ur saneamendua eta ur hornidura aldatzeko.

Gipuzkoako Urak-ek egokitzen hartuko du Udalak egindako proiektua.

LEGERIA.-

1.Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 31. artikulua arautzen ditu sektore publikoko erakundeen arteko kooperazio horizontala zein bertikala, ondoko hau xedatuz:

1. Las entidades pertenecientes al sector público podrán cooperar entre sí de alguna de las siguientes formas, sin que el resultado de esa cooperación pueda calificarse de contractual:

- a) Mediante sistemas de cooperación vertical consistentes en el uso de medios propios personificados en el sentido y con los límites establecidos en el artículo 32 para los poderes adjudicadores, y en el artículo 33 para los entes del sector público que no tengan la consideración de poder*



TOLOSAKO
UDALA

adjudicador, en el ejercicio de su potestad de auto organización, mediante el oportuno acuerdo de encargo.

- b) Mediante sistemas de cooperación horizontal entre entidades pertenecientes al sector público, previa celebración de los correspondientes convenios, en las condiciones y con los límites que se establecen en el apartado 1 del artículo 6.*

2. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, las entidades pertenecientes al sector público podrán en todo caso, acordar la realización conjunta de contrataciones específicas.

3. Cuando un procedimiento de contratación se desarrolle en su totalidad de forma conjunta en nombre y por cuenta de varias entidades, estas tendrán la responsabilidad conjunta del cumplimiento de sus obligaciones. Ello se aplicará también en aquellos casos en que una sola entidad administre el procedimiento, por cuenta propia y por cuenta de las demás entidades interesadas.

Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gipukoako Urak, S.A.k botere esleitzaillearen izaera du. Izan ere:

- Sozietate honen akziodun bakarra Gipuzkoako Ur Partzuergoa da akzioen %100arekin,*
- Bere xedea ur hornidurako eta saneamenduko azpiegituren eraikuntza eta ustiapena da.*
- Gipuzkoako Ur Partzuergoak bere jarduera kontrolatzen eta zuzentzen du.*

Beraz, Tolosako Udala eta Gipuzkoako Urak S.A. sektore publikoko entitateak direla ikusita, **kontratazio jardun bateratua izapidetu dezakete obra jakin batzuk egiteko**, kooperazio horizontalaren printzipioari jarraituz eta **hitzarmenen bidez. Kasu horretan, 31. artikuluan 3. atalean xedaturikoa aplikatuko litzateke.**

Hala ere, hitzarmen hau sinatzeko unean aipaturiko Legea ez da indarrean sartu. Beraz, bi erakundeen arteko kooperazioaren araudia oinarrituko da Kontratazio Publikoari buruz Europako Legebiltzarrak onartu zuen 2014/24/UE Zuzentarauan. Hain zuzen, aipatu Zuzentarauaren 38. artikulua ondoko hau xedatzen du, bere 38. artikuluan:

1. Dos o más poderes adjudicadores podrán acordar la realización conjunta de determinadas contrataciones específicas.

2. Cuando un procedimiento de contratación se desarrolle en su totalidad de forma conjunta en nombre y por cuenta de todos los poderes adjudicadores interesados, estos tendrán la responsabilidad conjunta del cumplimiento de sus obligaciones en virtud de la presente Directiva. Ello se aplicará también en aquellos casos en que un solo poder adjudicador administre el



TOLOSAKO
UDALA

procedimiento, por cuenta propia y por cuenta de los demás poderes adjudicadores interesados.

Quando un procedimiento de contratación no se desarrolle en su totalidad en nombre y por cuenta de los poderes adjudicadores interesados, estos solo tendrán la responsabilidad conjunta por aquellas partes que se hayan llevado a cabo conjuntamente. Cada poder adjudicador será único responsable del cumplimiento de sus obligaciones derivadas de la presente Directiva con respecto a las partes que lleve a cabo en su propio nombre y por cuenta propia.

Artikulu honek zuzeneko aplikazioa dauka estatuko araubide juridikoan, Kontratazio Publikoko Epaimahai Administratiboek 2016ko martxoaren 1ean adosturiko dokumentuan.

2.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua, besteak beste, udal eskumeneko zerbitzuak emateko, Toki Administrazioa eta gainontzeko Administrazioen arteko lankidetzak ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa arautzen ditu. Lankidetzak hori dagokion hitzarmenaren edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Kasu honetan, Gudari kalea berrurbanizatzeko obrak kontratatze eta exekutatzeko Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak izenpetzen duten hitzarmena kooperazio hitzarmena da. Beraz, hitzarmenaren araubide juridikoa, Sektore Publikoko araubidea arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47., 48., 49., 50., 51., 52. eta 53. artikuluetan xedaturikoa izango da.

3.- Hitzarmena sinatzeko eskumena kontratazio-organismoak du, kasu honetan, alkate-udalburuak, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 24ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileren II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalaren xedaturikoarekin bat.

Hala ere, alkateak delegatuta du proiektuak onartzea Gobernu Batzarrean, 2015eko uztailaren 18ko 1278/2015 Dekretuaren bidez eta, ondorioz, Gobernu Batzarrari dagokion hitzarmena sinatzea.

Hori horrela, eta Tolosako udal teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU



TOLOSAKO
UDALA

LEHENA.-- Onartzea hitzarmena Gipuzkoako Urak erakundearekin, Gudari kalea berrurbanizatzeko lanak modu bateratuan egiteko.

Hitzarmena ondorengo da :

**TOLOSAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO URAK SAREN ARTEKO LANKIDETZA
HITZARMENA**

Tolosan, 2018ko martxoaren 6an

BILDURIK

OLATZ PEON ORMAZABAL A., Tolosako udaleko Alkate-Udalburua

IÑIGO ELOSEGI VALLEJO J., Gipuzkoako Urak SAREN ordezkaria

Egintza honetan fede ematen du Tolosako Udaleko Idazkari Begoña Garmendia Vazquezek.

ESKU HARTU DUTE

Iñigo Eloseggi jaunak bere jarduneko kargua betez, Gipuzkoako Ur Partzuergoaren berriazko baliabidea den GIPUZKOAKO URAK SAREN izenean eta hura ordezkatzuz. Ordezkaritza hau egiaztatu du Donostiako notario den Juan Aurelio Lazaro Perez jaunaren aurrean 1994ko martxoaren 1ean emandako ahalordetze-eskirituraren bitartez, bere protokoloaren 535 zk.a duena.

Olatz Peon Ormazabal andreak, bere jarduneko kargua betez, Tolosako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko martxoaren 6an hartutako ebazpenaren arabera. Aipatu erabakiaren ziurtagiria eransten zaio hitzarmen honi 2. dokumentu gisa.

AURREKARIAK

LEHENIK.- Tolosako Udalak, 2006ko azaroaren 28an, uraren ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Partzuergoaren esku jartzea erabaki zuen. Hitzarmen honetan, Aguas de Gipuzkoa –Gipuzkoako Urak, S.A.rekin dagokion kudeaketa-agindua onartzea hitzartu zuten bi alderdiek.

BIGARREN.- Akordio honen bitartez Gipuzkoako Ur kontsortzioak konpromisoa hartu zuen Tolosako udalerrian 3.350.000,00 € (BEZa barne) inbertitzeko, hitzarmena sinatu eta hurrengo hamabost urteetan.



TOLOSAKO
UDALA

HIRUGARREN.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko martxoaren 6an egindako bilkuran, besteak beste, Gudari kalea berrurbanizatzeko lanak jasotzen dituen proiektua onartu du. Exekuzio-Proiektua GIDER Ingenieros enpresak erredaktatu du, INJELANek egindako aurreproiektutik abiatuta.

Proiektu horren barne, ur saneamendu eta ur hornidura sareen berrikuntzako lanak aurreikusten dira. Lan horiek, aurrez aipatutako hitzarmenaren arabera, Ur Kontsortzioko berariazko baliabidea den Gipuzkoako Urak SA enpresa publikoak exekutatu behar ditu, baina, zerbitzu teknikoek egindako txostenaren arabera, ezin dira banatu kalearen berrurbanizazioaren lanekin, eta, ondorioz, bi obra aldi berean gauzatu behar dira, zera, Tolosako Udalaren eskumeneko lanak, eta Ur Kontsortzioari dagozkionak.

Gipuzkoako Urak SAren ordezkariak, bere aldetik, aipatu diren lanak 2018ko urteko inbertsioen egitasmoaren barruan daudela azaldu du.

LAUGARREN.- Hitzarmen hau izenpetzen duten ordezkarien aburuz, Gudari kalean exekutatu beharreko lanak era koordinatuan gauzatu behar dira, orain arte izan diren esperientzietan oinarriturik. Halaber, exekutatu behar diren obra guztiak aldi berean gauzatzuz gero, herritarrek jasango dituzten eragozpenak murriztu egingo dira. Ez da ahaztu behar, era berean, eremu horretan merkataritza jarduera ugari garatzen direla, eta ezinbestekoa dela bermatzea obren exekuzioa ahalik eta azkarren gauzatu delako. Azkenik, bi obra batera exekutatuta, xede horretara atxikituko diren baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatuko dira, efizientzia eta eraginkortasuna hobetuz. Arrazoi hauengatik, hemen agertzen diren ordezkariak onartu dute bi erakundearen arteko kooperazioa jasotzen duen lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzea, ondoko xedearekin:

- Gudari kalea berrurbanizatzeko lanak exekutatzeko kontratazio jardunbide bakarra gauzatu dute Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak SAk. Horretarako, Gipuzkoako Urak SAk ezinbestekoa den ahalmena ematen dio Tolosako Udalari, erakunde honek obren kontratazio-jardunbidea izapide dezan, obren esleipenduna proposatu arte.
- Erakunde bakoitzaren organo eskudunak dagokion obren adjudikazioa ebatziko du, eta kontratua izenpetuko du. Beraz, bi kontratu izenpetuko dira, bata, Tolosako Udalak eta, bestea, Gipuzkoako Urak SAk, bakoitzari dagokion obraren arabera.
- Erakunde bakoitzeko organo eskudunak izango du bere kontratuaren exekuzio, harrera eta likidazioaren ardura.
- Obrak finantzatzeko irizpideak adostuko dituzte bi erakundeek eta dokumentu honetan islatuko dituzte.
- Hitzarmen honetan xedatzen den kooperazio esparruaren jarraipena egiteko, batzorde bat eratuko dute bi erakundeek

BOSGARREN.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 31. artikulua sektore publikoko erakundearen arteko kooperazio horizontala zein bertikala arautzen ditu, ondoko hau xedatuz: **1.** Las entidades pertenecientes al sector público podrán cooperar entre sí de alguna de las siguientes formas, sin que el resultado de esa cooperación pueda calificarse de contractual:



- **a)** Mediante sistemas de cooperación vertical consistentes en el uso de medios propios personificados en el sentido y con los límites establecidos en el artículo 32 para los poderes adjudicadores, y en el artículo 33 para los entes del sector público que no tengan la consideración de poder adjudicador, en el ejercicio de su potestad de auto organización, mediante el oportuno acuerdo de encargo.
- **b)** Mediante **sistemas de cooperación horizontal entre entidades pertenecientes al sector público**, previa celebración de los correspondientes convenios, en las condiciones y con los límites que se establecen en el apartado 1 del artículo 6.

2. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, **las entidades pertenecientes al sector público podrán en todo caso, acordar la realización conjunta de contrataciones específicas.**

3. Cuando un procedimiento de contratación se desarrolle en su totalidad de forma conjunta en nombre y por cuenta de varias entidades, estas tendrán la responsabilidad conjunta del cumplimiento de sus obligaciones. Ello se aplicará también en aquellos casos en que una sola entidad administre el procedimiento, por cuenta propia y por cuenta de las demás entidades interesadas.

Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gipuzkoako Urak SAK **botere esleiztailearen izaera du**. Izan ere:

- Sozietate honen akziodun bakarra Gipuzkoako Ur Partzuergoa da akzioen %100arekin,
- Bere xedea ur hornidurako eta saneamenduko azpiegituren eraikuntza eta ustiapena da.
- Gipuzkoako Ur Partzuergoak bere jarduera kontrolatzen eta zuzentzen du.

Beraz, ikusita Tolosako Udala eta Gipuzkoako Urak SA sektore publikoko entitateak direla, **kontratazio jardun bateratua izapidetu dezakete obra jakin batzuk egiteko**, kooperazio horizontalaren printzipioari jarraituz eta **hitzarmenen bidez. Kasu horretan, 31. artikuluan 3. atalean xedaturikoa aplikatuko litzateke.**

Hala ere, hitzarmen hau sinatzeko unean aipaturiko Legea ez da indarrean sartu. Beraz, bi erakundeen arteko kooperazioaren araudia Kontratazio Publikoari buruz Europako Legebiltzarrak onartu zuen 2014/24/UE Zuzentarauan oinarrituko da. Hain zuzen, aipatu Zuzentarauaren 38. artikulua ondoko hau xedatzen du bere 38. artikuluan: 1. Dos o más poderes adjudicadores podrán acordar la realización conjunta de determinadas contrataciones específicas.

2. Cuando un procedimiento de contratación se desarrolle en su totalidad de forma conjunta en nombre y por cuenta de todos los poderes adjudicadores interesados, estos tendrán la responsabilidad conjunta del cumplimiento de sus obligaciones en virtud de la presente Directiva. Ello se aplicará también en aquellos casos en que un solo poder adjudicador administre el procedimiento, por cuenta propia y por cuenta de los demás poderes adjudicadores interesados.

Cuando un procedimiento de contratación no se desarrolle en su totalidad en nombre y por cuenta de los poderes adjudicadores interesados, estos solo tendrán la responsabilidad conjunta por aquellas partes que se hayan llevado a cabo conjuntamente. Cada poder adjudicador será único responsable del cumplimiento de sus obligaciones derivadas de la presente Directiva con respecto a las partes que lleve a cabo en su propio nombre y por cuenta propia.



TOLOSAKO
UDALA

Artikulu honek zuzeneko aplikazioa dauka estatuko araubide juridikoan, Kontratazio Publikoko Epaimahai Administratiboek 2016ko martxoaren 1ean adosturiko dokumentuan.

SEIGARREN.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua, besteak beste udal eskumeneko zerbitzuak emateko, Toki Administrazioa eta gainontzeko Administrazioen arteko lankidetzak ekonomikoa, teknikoa, eta administratiboa arautzen du. Lankidetzak hori, dagokion hitzarmena edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Kasu honetan, Gudari kalea berrurbanizatzeko obrak kontratatze eta exekutatzeko Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak SAK izenpetzen duten hitzarmena kooperazio hitzarmena da. Beraz, hitzarmenaren araubide juridikoa, Sektore Publikoko araubidea arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47., 48., 49., 50., 51., 52. eta 53. artikuluetan xedaturikoa izango da.

ZAZPIGARREN.- Bi erakundeen arteko kooperazio esparruaren araubidea argitu ondoren, Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak SAK hitzarmen hau sinatzen dute, Gudari kalea berrurbanizatzeko lanak kontratatze jardunbide bateratua garatzeko, nahiz eta erakunde bakoitzak bere gain hartuko dituen kontratu bakoitzarekin loturiko betebeharrak.

Kontuan izanda Tolosako Udalak egin behar dituen obrek askoz ere aurrekontu handiagoa dutela, bi aldeek onartzen dute Tolosako Udalak izapidetuko duela Gudari kalea berrurbanizatzeko lanen kontratazio espedienteak, eta, Tolosako Udalak aztertuko dituela eskaintzak eta obren adjudikazioa proposatuko duela.

Hala ere, obra kontratua bitan banatuko da: alde batetik, Gipuzkoako Urak SAK bere gain hartuko ditu ur saneamenduko eta ur hornidurako obrak egitea eta ordaintzea eta, bestetik, Tolosako Udalak bere gain hartuko ditu gainontzeko obrak.

Obra proiektua GIRDER ingenieros enpresak egin du, eta Gipuzkoa Urak SA enpresak onartu egiten du eta ontzat ematen du egindako proiektua.

Beraz, bi erakundeetako ordezkariak

HITZARTU DUTE

LEHENA.- Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak SAK onartzen dute Tolosako Udalak izapidetuko dituela Gudari kalea berrurbanizatzeko obrak, GIRDER ingenieros enpresak egindako proiektuaren arabera.

Gipuzkoako Urak SAK ontzat ematen du proiektu hori. Nolanahi ere, aurreikusten diren lan guztiak bat etorriko dira Gipuzkoako Bajako Sareari buruzko Araudi Teknikoak eta aplikatu beharreko araudiak xedatzen dituzten eskakizunekin eta, ondorioz, nahiz eta proiektuan jasotako ur hornidurako eta saneamenduko lanak ontzat ematen dira, edozein kasutan aipatutako araudiak bete beharko dira.



TOLOSAKO
UDALA

Halaber, Gipuzkoako Urak SAK bere adostasuna adierazten du Tolosako Udalak onarturiko Baldintza Administrazioen Pleguarekin eta Preskripzio Teknikoen Pleguarekin.

Kontratua esleitzeko jardunbidea Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilean xedaturikoarekin bat etorriko da. Hortaz, **jardunbide irekia** erabiliko da, SPKLren Testu Bateginaren 157. eta ondorengo artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki. Halaber, eskaintzak balioesteko eta ekonomikoki abantailatsuena den eskaintza zehazteko, kontratuaren xedearekin lotura duten hainbat irizpide erabiliko dira, SPKLren Testu Bateginaren 150.1 artikulua eta baldintza agiri honen 14. klausulan ezarritakoari jarraituz. Azkenik, espedientearen izapidetzea **ohikoa** izango da.

Ondorioz, Tolosako Udalak ondorengo eskumenak izango du kontratua esleitzeko:

- Baldintza Administrazioen Plegua eta Preskripzio Teknikoen Plegua onartzea.
- Kontratazio-espedientea onartzea.
- Lizitazioa abian jartzea.
- Iragarkiak egitea.
- Kontratazio mahaia osatzea.
- Eskaintzak aztertzea eta baloratzea, bai teknikoki, bai ekonomikoki, Pleguetan xedatutakoa jarraituz.
- Esleipen proposamena egitea eta esleipendunari errekerimendua formulatzea, esleipena gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkez dezan.
- Tolosako Udalak egindako esleipen proposamena loteslea izango da Gipuzkoako Urak SArentzat. Halaber, Gipuzkoako Urak SA Tolosako Udalak proposaturiko esleipena ebatziko du hamar eguneko epean.
- Obra zuzendaritza izendatzea.

Gipuzkoako Urak SAK, bere aldetik, ondoko eskubide hauek izango ditu:

- Ordezkaririk bat izendatzeko eskubidea, Tolosako Udaleko kontratazio mahaiko bileretan parte har dezan.
- Kontratazio espedienteko dokumentazioa (pleguak, txostenak, aktak, esleipen proposamena etab.) kontsultatzeko eta bere iritzia emateko eskubidea.
- Teknikari bat izendatzeko eskubidea, berari dagokion obra gainbegira dezan.

BIGARRENA.- Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak SAK izenpetuko dute obra-kontratu bana, bakoitzari dagokion lanen zatiarekin.

Erakunde bakoitzak izango du eskumena dagokion obraren exekuzioan zehar. Edonola ere, obraren exekuzioa, harrera eta likidazioa, Baldintza Administrazioen Pleguan eta Preskripzio Teknikoen Pleguan xedaturikoaren arabera emango dira. Era honetan:

- Erakunde bakoitzak dagokion obra-kontratua izenpetuko du, bakoitzari dagokion lanen zatiarekin, onarturiko Proiektuaren arabera.
- Erakunde bakoitzak ordainduko ditu bere betebeharrak dagozkien fakturak edo obra ziurtagiriak, Baldintza Administrazioen Pleguan xedaturikoa jarraituz.



TOLOSAKO
UDALA

- Kontratuaren aldaketak ematen badira, bat etorri behar dute Baldintza Administrazioaren Pleguan eta Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilean xedaturikoarekin. Erakunde bakoitza arduratuko da dagokion obra zatiaren aldaketaz.
- Obren exekuzioan aldaketak egiten badira, aldaketa espedientearen berri eman beharko zaio beste erakundeari.
- Erakunde bakoitzak hartuko du dagokion obra-zatia, eta haren likidazioa ebatziko du.

Horretaz gain, Gipuzkoako Urak SAK kontratua bertan behera utziko nahi izango balu, olosako Udalaren baimena jaso beharko luke, izan ere, bi kontratuak batera exekutatu behar dira.

HIRUGARRENA.- Erakunde bakoitzak finantzatuko du bakoitzari dagokion obra-zatia. Proiektuan jasotakoaren arabera, hasiera batean erakunde bakoitzari dagokion kopurua honakoa da:

- Tolosako Udalari.....520.744,13 (BEZ barne)*
- Gipuzkoako Urak SAr.....135.092,81 (BEZ barne)

*Hemen sartu da TOLARGI SA Udaleko sozietateari dagokion kopurua.

Bi alderdiek onartu dituzte aurrekontu hauek egintza honetan. Halaber, hitzarmena sinatzerakoan, kontratazio hauei aurre egiteko nahikoa kreditua erabilgarria dutela adierazi dute agertutakoek.

LAUGARRENA.- Hitzarmen honen iraupena lotuta egongo da lanen exekuzioarekin, amaiera eta kitapenarekin. Beraz, amaituko da obren kitapenarekin batera. Baldintza Administrazioaren Pleguan xedatutakoaren arabera, obren iraupena bost hilabetekoa izango da.

BOSGARRENA.- Hitzarmen honek izaera administratiboa izango du, eta bertan aurreikusten ez den guztian ondoko hauek aplikatuko dira:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Sektore Publikoko Araubidea arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legea.
- Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea.
- Kontratazio Publikoari buruzko 2014/24/UE Zuzentaraua.

Eta goian aipaturiko leku eta datan, bi ordezkariak izenpetu dute hitzarmen hau, beran adostasuna adieraziz.

TOLOSAKO UDALA,
Olatz Peon Ormazabal

GIPUZKOAKO URAK SA
Iñigo Elosegui Vallejo



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, web orrian eta gardentasunaren atarian argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Urak SAri eta Kontuhartzaitzari.

5.- Gudari kalea berrurbanizatzeko lanak kontratatzeke espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea

Aurrekariak

Gobernu Batzarrak, 2018ko martxoaren 6an, Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektua onartu du.

Proiektuaren helburua Gudari kalea berrurbanizatzea da, hirigintza-baldintzak eta irisgarritasuna hobetzeko:

Hauek dira obren ezaugarriak:

- Aglomeratua konpontzea gune batzuetan eta Lizardi plazaren aurrean aglomeratua saneatzea eta berrezartzea.
- Saneamendu sarean dauden fibrozementuzko hodiak berriztatzea.
- Saneamendu sare bereiziz prestatzea.
- Argiztapena berritzea.
- Espaloi bietan zoladura ezartzea, egungo espaloi eta galtzadaren zabalera bere horretan gordeta.

Data berarekin, Tolargi eta Gipuzkoako Urarekin sinatu beharreko hitzarmenak onartu dira. Kontuan hartu behar da, bi hitzarmenetan aurreikusten dela obra kontratuaren esleipena Tolosako Udalak egingo duela, baina erakunde bakoitza izango dela bere kontratuaren arduradun bakarra.

Bi hitzarmenak sinatu ondoren, eta obren finantzazioa ziurtatu ondoren, obrak esleitzeko prozedurari hasiera eman behar zaio.

Araudia:

3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.

ONDORIOAK

Pleguak prestatu dira eta hitzarmena sinatu da Gipuzkoako Urarekin.

Tolargi SAko Udal Sozietatearen Administrazio Kontseiluaren lehendakariak onartu du Udalak egindako proiektua, eta onartu du argindarrari dagozkion kopuruak ordaintzea ere. Udal ingeniariak zuinketa akta egin du.

Administrazio Baldintza Partikularren Plegua onartu aurretik, SPKLTBko bigarren xedapenaren 7. paragrafoaren arabera, beharko da idazkariaren txostena edo, hala behar duenean, korporazioari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularraren eta kontu-hartzailearen txostenak.



TOLOSAKO
UDALA

Hau dena kontuan izanik, eta udal teknikariek egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Gudari kalea berrurbanizatzeko Proiektuan jasotako lanen exekuzioa xede duen kontratazio espedientea.

BIGARRENA.- Kontratuaren gehieneko prezioa **655.836,94 eurokoa da** (% 21eko BEZa barne); horietatik, 542.014,00 € printzipalari dagozkio eta 113.822,94 € % 21eko BEZari.

Gipuzkoako Urarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, aurreko kopuru horretatik Gipuzkoako Uraren kontratuari 135.092,81 euro (BEZa barne) dagozkio,

HIRUGARRENA.- Kontratazio honen xede diren obrak gauzatzeko gehieneko epea **SEI HILABETEKOA** izango da, zuinetaren egiaztapen-akta sinatu eta hurrengo egunetik hasita.

LAUGARRENA.- Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Plegua.

BOSGARRENA.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea eta dagokion iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Tolosako Udaleko kontratugilearen profilean, lizitatuzaileek beren **proposamenak 26 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.**

SEIGARRENA.- Erabaki horiek Kontuhartzaitzari jakinaraztea.

6. 80/2017 eta 5//2018 faktura-zerrendak.

Kontuhartzaitzak **80/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **13.325,73 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU



TOLOSAKO
UDALA

LEHENA.- 80/2017 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **5/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **140.329,57 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- 5/2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA